

## Martin Ugalde: "Puntuazioa neure arnasa bezala sentitzen dut"

Jon Mikel Arano

*Euskaldunon Egunkaria*, 1991-01-05: 25.

- Galdera.– Zeure-zeure hiru idazleren izenak.  
 Erantzuna.– Lizardi, Koldo Mitxelena, Sarrionandia.  
 G.– Irakurle-eredu jakin batentzat idazten duzu?  
 E.– Herria maite duen gaztea.  
 G.– Fikziozko pertsonaia bat.  
 E.– Bernardo Atxagaren "Bi anaia" liburuko bi anaia.  
 G.– Idaztea, ofizio ala benefizio?  
 E.– Afizioz ofizio egina.  
 G.– Idatzi, sufrituz ala gozatuz?  
 E.– Sufrituz eta gozatuz. Biak batera.  
 G.– Testuak, luze ala labur?  
 E.– Laburki (baina) landuak.  
 G.– Idazterakoan maniarik bai?  
 E.– Paper zuria eta biguina behar dut, eta puntuazioa neure arnasa bezala sentitzen dut. Behar dut neure arnasarekin batera idatzi. Hori hala da.  
 G.– Generoak, joera, 'ismoak'.  
 E.– Esango dizut zein estilo dudan gogozko. Estilo bizi, gaiari egokia. 'Ismorik' ez.  
 G.– Liburu on baten izena.  
 E.– Orixeren 'Santa Kruz apaiza'.  
 G.– Idazlea, pertsonaia publikoa da?  
 E.– Idazlea gizon publikoa da. Nahi ez badu ere.  
 G.– Lagunak edo benetan gertatutakoak sartzen dituzu zure lanetan?  
 E.– Nire pertsonaien artean, lagun asko. areriores bat ere bai. Hogeitamalau liburu ditut. Munduak ditut sartuta hor. Orain ari naiz beste bat egiten eta pertsonaien bila nabil. Sentitzen ditudan tipoak bilatu behar ditut. Askotan lagun on bat txar bezala azaltzen da eta alderantziz. Ezaguna behar du izan: bere jestuak burura etorri zaizkidalako e.a. Neure buruarekin eta ikuspuntuekin koherenteago izateko, ezagunak sartzen ditut.  
 G.– Zure idazlanetan, zer gailentzen da: fantasia, fikzioa, errealitatea, filosofia, etika, estetika...  
 E.– Fikzioa, kreative-lana eta etika.  
 G.– Zer ari zara irakurtzen?  
 E.– Alvaro Cunqueiro galiziarra ari naiz irakurtzen. 'Oresteren antza zuen gizona'.